Irizpenaren proposamen hori bozkatu eta onartu egin da emaitza honekin:

Sometida a votación la propuesta del dictamen, se aprueba con el siguiente resultado:

Baiezko botoak: Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE), Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren - Lamarain Cobok delegatutako botoa ere eman du-, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Votos afirmativos: Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga e Iraola Iriondo (PSE-EE), Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren - quien ejerce voto delegado por Lamarain Cobo-, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Ez dago ezezko botorik.

Votos negativos: ninguno.

Abstentzioak: Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez (Eibarko EAJ-PNV).

Abstenciones: Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez (Eibarko EAJ-PNV).

Ibañez Anuncibay andrea sartu da bilkuran.

Se incorpora a la sesión la señora Ibañez Anuncibay.

2.- 2017ko Aurrekontuari egindako zuzenketak eta alegazioak ebaztea eta 2017ko Aurrekontu Orokorra onartzea.

Honako diktamen hau irakurri da:

“2017ko apirilaren 12an, Udaleko osoko bilkurak 2017ko jardunaldiko Aurrekontu Orokorrari hasierako onespena ematea erabaki zuen; 2017ko apirilaren 21eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara erabakia. Jendaurrean jarrita egon den aldian (2017ko apirilaren 22tik maiatzaren 15era bitartean, honako idazki hauek aurkeztu dira:

- 2017ko maiatzaren 4ko idazki bidez “Podemos Ahal Dugu Eibar"ek 29 zuzenketa partzial aurkeztu zizkion 2017ko Eibarko Aurrekontu Orokorrari.

- 2017ko maiatzaren 15ean, “La Plazoleta” Txonta auzoko bizilagunen elkarteak alegazio-idazkia sartu zuen 2017ko Eibarko Aurrekontu Orokorraren kontra.

Kontu, Ogasun eta Ondare lan batzordeko kide diren zinegotziek bilera aurretik eskuratu dituzte “Podemos Ahal Dugu Eibar"ek eta "La Plazoleta" Txontako bizilagunen elkarteak aurkeztutako idatziak.

Era berean, eskura izan dituzte baita

2.- Resolución a las Enmiendas y Alegaciones al Presupuesto 2017 y aprobación del Presupuesto General 2017.

Se da lectura al siguiente dictamen:

“El Pleno Municipal, en sesión de 12 de abril de 2017 acordó aprobar con carácter inicial el Presupuesto General para el ejercicio 2017. Dicho acuerdo se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 21 de abril de 2017. En el plazo de exposición pública (22 de abril a 15 de mayo de 2017) se han presentado los siguientes escritos:

- Con fecha 4 de mayo de 2017 “Podemos Ahal Dugu Eibar” un escrito en el que presenta 29 enmiendas parciales al Presupuesto General de Eibar de 2017.

- Con fecha 15 de mayo de 2017 la Asociación de vecinos de Txonta “La Plazoleta” presenta un escrito de Alegaciones al Presupuesto general de Eibar de 2017.

Los concejales miembros de la Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio han dispuesto con anterioridad de los escritos presentados por “Podemos Ahal Dugu Eibar” y por la Asociación de vecinos de Txonta “La Plazoleta”.

Asimismo han dispuesto de los informes

Kontu-hartzaile jaunak “Podemos Ahal Dugu Eibar"ek aurkeztutako idatziaren inguruan eta "La Plazoleta" Txontako bizilagunen elkarteak aurkeztutako idatziari buruz egin dituen txostenak; eta gaiaren inguruan eta txosten horietan jasotako irizpideei eta gogoetei buruz eztabaidatu da.

emitidos por el Sr. Interventor sobre el escrito presentado por “Podemos Ahal Dugu Eibar” y sobre el escrito presentado por la Asociación de vecinos de Txonta “La Plazoleta”; se ha debatido el tema y los criterios y consideraciones recogidos en dichos informes.

Aurkeztu diren idazki 2ak aintzat ez hartzeko bozketa egin du Kontu, Ogasun eta Ondare lan batzordeak, eta emaitza honako hau izan da: aldeko botoak, 3 (Alberto Albistegui, Patricia Arrizabalaga eta Jon Iraola); abstentzioak, 5 (Gorka Errasti, Leire Abanzabalegi, Elena Ibáñez, Eva Juez eta Mª Jesús Aguirre). Horren aurrean, Udal Osoko bilkurari erabaki hauek hartzeko proposamena egiten dio:

La Comisión de Cuentas, Hacienda y Patrimonio, somete a votación el desestimar los dos escritos presentados, con el siguiente resultado: 3 votos a favor: (Alberto Albístegui, Patricia Arrizabalaga y Jon Iraola), y 5 abstenciones (Gorka Errasti, Leire Abanzabalegi, Elena Ibáñez, Eva Juez y Mª Jesús Aguirre), y propone al Pleno Municipal adoptar los siguientes acuerdos:

1.- 2017ko Eibarko Aurrekontu Orokorrari “Podemos Ahal Dugu Eibar"ek aurkeztutako zuzenketa partzialak eta "La Plazoleta" Txontako bizilagunen elkarteak aurkeztutako alegazioak ezetsi, zuzenketa partzial horiek eta alegazio horiek ez direlako sartzen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauak 17.2 artikuluan aurrekontuari erreklamazioak egiteko jasotzen dituen arrazoien artean.

1.- Desestimar las enmiendas parciales al Presupuesto General de Eibar de 2017 presentadas por “Podemos Ahal Dugu Eibar” y desestimar las alegaciones presentadas por la Asociación de Vecinos “La Plazoleta”, por considerar que las mismas no constituyen ninguno de los motivos recogidos por el artículo 17.2 de la Norma Foral 21/2003 Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, para presentar reclamaciones al presupuesto.

2.- Behin betiko onarpena ematea Eibarko Udalaren 2017. jardunaldirako Aurre-

2.- Aprobar definitivamente el Presupuesto General del Ayuntamiento de Eibar para el

kontu Orokorrari hasierako onespen hartan jasotakoa oinarri."

ejercicio 2017, en los términos planteados en la aprobación inicial."

Errasti jaunak hitza hartu du eta bere Taldeak aurrekontuen kontrako botoa eman zuela esaten du; beraz, ez luke zentzu handiegirik izango aukera baten edo bestearen alde egiteak, eta horregatik abstenitu egingo direla.

*La Plazoleta* elkarteak aurkeztu dituen alegazioei buruz, Errasti jaunak dio, izateko arrazoirik ez izan arren, kontuhartzaile jaunak adierazi duen moduan, idatzian gauza azpimarragarriak topatu dituztela, bere Taldea eskatzen ari denarekin bat datozen gauzak; eta, batik bat, azkeneko epaiaren ondoren. Esaten du lehen begien bistakoa bazen ere, orain bai, Txontako mahaia erakunde iraunkor bilakatu behar dela, maiztasun egonkorrekoa.

Gaineratzen du informazio-bilera bat egitea ere eskatzen dutela, Txontako auzotar guztiei Udalak oraingo egoera honi buruzko azalpenak eman diezazkien,

Aurrekontuan, dio Errasti jaunak, Txontarentzako 250.000 euro daude jasota, eman den epaiaren ondoren, auzo hura berroneratzeko erabiliko dena. Gaineratzen du egitekoak Txontako Mahaian le-

Pide la palabra el Sr. Errasti para decir que su Grupo votó en contra de los presupuestos, por lo que decantarse por una opción u otra en cuanto a las alegaciones no tendría mucho sentido, y que por ello se abstendrán.

En cuanto a las alegaciones de la Asociación *La Plazoleta*, prosigue, aun cuando como indica el señor Interventor no tiene razón de ser; sí que encuentran en el escrito aspectos reseñables y que están en sintonía con lo que su Grupo viene reclamando, sobre todo, a partir de la última sentencia; y señala que si antes era de cajón, ahora sí que consideran que la mesa de Txonta tiene que constituirse en un órgano permanente y con periodicidad estable.

Añade que también solicitan una reunión informativa para que a todos los vecinos y vecinas de Txonta se les den explicaciones por parte del Ayuntamiento sobre la situación actual, pues tienen mucha incertidumbre y necesitan un foro donde calmar sus dudas.

En el Presupuesto, prosigue, se recogen 250.000 euros para Txonta que tras la sentencia serán destinados a la regeneración del barrio, y añade que considera que debería ser en la Mesa de Txonta donde se

henetsi beharko liratekeela eta, bestalde, Eusko Jaurlaritzaren aldetik konpromiso serio bat egon behar dela auzo hura berroneratzeko. Ispilua, dio Errasti jaunak, Mogelen egindakoa izan behar da.

Geroxeago dio idatziko den proiektu berria errealista izan behar dela, serioa, inongo espekulaziorik gabekoa; auzoaren berroneratzea lehenetsi eta han jaso behar den etxebizitza-kopuruari buruz zuhurtasunez jokatuko duena. Egazelai eta Iparragirreko promozioetan oraindik hutsik dauden babes ofizialeko etxebizitzak daude.

Gaineratzen du faltan botatzen dela udalerriak benetan duen etxebizitza-premia zehatza islatuko lukeen udal azterketa bat; eta *La Plazoleta* elkarteak egiten duen moduan, beraiek ere hauxe uste dutela: auzo hura berroneratzeko, *Txonta Kulturala* bultza daitekeela, auzo haren ondare historikoari eta kulturalari balioa emanez, eta hori hiriko beste alde batzuetara ere estrapolatu daitekeela.

Ekartzen du gogora, joan zen urtean, bere Taldeak Aurrekontuari egin zion zuzenketa baten ondorioz, jarduketa puntual bat egin zela, baina aurten, aurrekontuaren agirian ez dela ezer islatzen, eta bere Taldeak aurkeztu zituen proiektu edo asmo askotan tematu beharrik izan ez badute ere —PSEk bereak balira bezala hartu dituelako—, ematen du PSEk ez duela konpromisorik *Txonta Kulturala*-

priorizaran las actuaciones; y por otra parte, debe de haber un compromiso serio por parte del Gobierno Vasco para la regeneración del barrio, y que el espejo de ello tiene que ser la actuación llevada a cabo en Mogel.

Dice más adelante que el nuevo proyecto que se redacte tiene que ser un proyecto realista, serio y nada especulativo, que priorice la regeneración del barrio, y que sea cauteloso con el número de viviendas proyectadas, pues en las promociones de Egazelai e Iparraguirre todavía hay viviendas VPO vacías.

Añade que al respecto, se echa en falta un estudio municipal donde se especifique la necesidad real de viviendas en el municipio, y que consideran, como lo hace la Asociación *La Plazoleta*, que la regeneración del barrio puede hacerse mediante el impulso de Txonta Kulturala, poniendo en valor el patrimonio histórico y cultural del barrio y extrapolándose incluso a otras zonas de la ciudad.

Recuerda que el año pasado, por una enmienda de su Grupo al Presupuesto, se llevó a cabo una actividad puntual, pero que este año no se refleja nada en el documento presupuestario, y que aunque no han tenido que insistir en muchos proyectos que presentó su Grupo, porque el PSE los ha hecho suyos; parece que sin embargo, no tiene compromiso con Txonta Kulturala.

rekin.

Jarraitu du esaten Ahal Dugu-Podemos-en alegazioak, kontu-hartzaile jaunak esan duen moduan, ez direla alegazio, zuzenketak baizik, eta zuzenketak —oraingoz behintzat— bakarrik Udalean ordezkaritza duten talde politikoek aurkez ditzakete. Gainera, dio, egindako ibilbidea arbuiatzen dute: zuzenketa itxurako alegazioak aurkeztu eta, zuzenketa horiei ezetza eman ondoren, mozio bilakatu.

Gaineratzen du hori ezin dela horrela izan: alde batetik, mozioek ez luketelako Aurrekontua horrenbesteraino konprometitu behar; eta, bestetik, gobernu-taldeak oposizioarekin egiten duen negoziazioak zentzu guztia galduko lukelako, izan ere, berdin izango litzateke aurrekontuaren alde edo kontra egitea, gero, mozio erara zuzenketak sartu ahal badira.

Geroxeago dio bere Taldeak urte asko daramala elkarteekin biltzen aurrekontuen inguruan, eta, joan zen urtean, Ahal Dugu-Podemos talde politikoarekin ere bildu zirela; bere Taldeko ateak zabalik daudela, eta mozio hauek hain estrategikoak baziren, berek eskertuko zuketela horren inguruko bilera bat egitea.

Ostera, hau guztia gobernu-taldeari belarritik tira egiteko bada, aurrekontuak ez direlako parte-hartzaileak, bere Taldeak bat egiten duela belarritik tira egite horrekin.

Prosigue en su intervención diciendo que, en cuanto a las alegaciones de Podemos, como indica el Interventor, no son alegaciones; sino enmiendas, y las enmiendas por el momento sólo las pueden presentar los grupos políticos con representación en el Ayuntamiento, rechazando además el itinerario realizado: presentar alegaciones en forma de enmiendas que, al ser rechazadas, se convierten en mociones.

Añade que ello no puede ser así, por una parte, porque las mociones no deberían de comprometer tanto al Presupuesto, y por otra, porque la negociación del equipo de gobierno con el resto de la oposición perdería todo su sentido, pues daría lo mismo apoyar o no el presupuesto, si luego se pueden introducir enmiendas en forma de moción.

Dice más adelante que su Grupo lleva años reuniéndose con asociaciones para tratar sobre los presupuestos, y que incluso el año pasado se reunieron con el grupo político Podemos, que las puertas de su Grupo están abiertas, y que si estas mociones fueran tan estratégicas, hubieran agradecido una reunión al respecto.

Si por el contrario, concluye, todo esto es para dar un tirón de orejas al equipo de gobierno por no ser los presupuestos participativos; su Grupo se adhiere a ese tirón de orejas.

Mendicute jaunak hartu du hitza. Esaten du bere Taldeak, joan zen urtean, Osoko bilkuran, aurrekontuen zirriborroa noiz aurkeztu behar zen galdetu zuenean, alkate jaunak hauxe erantzun ziela: beranduko aurrekontuak baina adostuak aurkez zitezkeela, edo aurrekontuak oso azkar aurkeztu, baina akordiorik gabe. Eta berek orduan ere esan zutela: azkenean, aurrekontuak, berandu eta akordio gabe aurkeztu zirela, eta hori errepikatu nahi du gaur: berandu eta akordio gabe onartzen direla.

Interviene el señor Mendicute quien afirma que cuando su Grupo preguntó en el pleno el año pasado cuándo se iba a presentar el borrador de presupuestos, el señor Alcalde le respondió que se podían presentar unos presupuestos tardíos pero consensuados, o ser presentados rápidamente, pero sin acuerdo; y que ya dijeron que finalmente los presupuestos se habían presentado tarde y sin acuerdo, lo cual hoy reitera, que se aprueban tarde y sin acuerdo.

Aurrekontu hau, baieztatzen du Mendicute jaunak, abenduaren 31n onartu behar zen, eta maitzaren 29an ari dira alegazioak eztabaidatzen; beraz, atzerapena begien bistakoa da; eta lehen ere esan zutela: aurrekontuak argitara eman, *Sanjuanak* heldu eta udako oporrak iritsi, eta ez da denborarik geratzen partidak gauzatzeko. Horregatik, bere Taldearen proposamena hauxe da: uztailean has daitezela berba egiten 2018ko aurrekontuen inguruan, eta 2018ko aurrekontuaren negoziazioei ekin behar zaienean sartzen dira indarrean 2017ko aurrekontuak.

Este Presupuesto, afirma, se tenía que haber aprobado el 31 de diciembre, y se está a 29 de mayo debatiendo las alegaciones, por lo que el retraso es evidente; y que ya dijeron que entre la publicación, San Juanes y vacaciones de verano, no queda tiempo para ejecutar las partidas; por lo que la propuesta de su Grupo es que en julio se empiece a hablar de los presupuestos del año 2018, con lo que entran en vigor los presupuestos del 2017 cuando deben de iniciarse las negociaciones del presupuesto del año 2018.

Geroago dio bere Taldeari gustatu egiten zaizkiola alegazio eran aurkeztu diren zuzenketa horietako batzuk; eta deitoratu egiten dutela alegazioak aurkezten dituen eta hauteskundeetan parte hartu ez zuen talde politiko bat egotea; beraz, talde horrek ezin ditu bideratu bere asmoak edo nahiak aurrekontuari zuzenketak eginez.

Dice más adelante que a su Grupo le gustan algunas de las enmiendas presentadas en forma de alegaciones, y que lamentan que haya una formación que presenta alegaciones y que no participó en las pasadas elecciones; por lo que no puede dar cauce a sus anhelos mediante enmiendas al presupuesto; si bien algunas no se pueden

Hala ere —dio Mendicute jaunak— asmo horietako batzuk ere ezin dira onartu aurrekontuaren bitartez, esate baterako, ibilgailuen zerga merkatzea, hori Ordenantza fiskalaren bitartez egiten baita. Gainera, proposamen hori bere Taldeak egin zuen, baina, azkenean, bakarrik geratu zen; horregatik, berek gustura asko hartuko lituzkete aliatuak Udal barruan, eibartarrek ibilgailuen zerga merkeagoa izan dezaten.

aprobar a través del presupuesto, como la de abaratar el impuesto de vehículos, que se hace a través de la Ordenanza Fiscal, siendo además esta una propuesta realizada por su Grupo pero en la que se quedaron solos, por lo que les encantaría encontrar aliados dentro del Ayuntamiento para que los eibarreses e eibarresas tenga un impuesto de vehículos más barato.

Proposamen horietako batzuekin berek ados egon badaitezke ere, dio Mendicute jaunak, kontu-hartzaile jaunak egindako txosten bat dago, aurkeztu diren alegazioei ezetza ematea eskatzen duena; eta bere Taldeak, agintaldi honetan, txosten teknikoen kontrako botoa ez emateko ohitura duenez, aldeko botoa ematea irizpide horren kontra joatea izango litzateke. Beraz, alegazioen bozketan abstenitu egingo direla iragarri du.

Pese a que pueden estar de acuerdo con algunas de las propuestas, prosigue en su intervención, hay un informe del Interventor que invita a desestimar las alegaciones presentadas, y siendo costumbre de su Grupo en este mandato no votar en contra de los informes técnicos, el votar a favor implicaría ir en contra de este criterio; por lo que anuncia que se van a abstener en la votación de las alegaciones.

Mendicute jaunak amaitu du bere interbentzioa eta esan du, Sanjuanak igaro ondoren, has daitezela berbetan 2018ko aurrekontuaren inguruan, urtea amaitu baino lehen onar dadin, eta, ahal bada, askoz hobe modu adostuan bada —eta ez bakarrik Udaleko alderdi politikoen artean—, aurrekontu parte-hartzaileen bitartez.

Finaliza su intervención insistiendo en que a la vuelta de San Juanes, se comience a hablar del presupuesto del año 2018, para que pueda aprobarse antes de finales de año, y que si puede ser, de forma consensuada mucho mejor -no sólo de las formaciones del Ayuntamiento-, sino mediante presupuestos participativos.

Aguirre andreak hitza eskatu du, berak mozio hauek aurrera eramatearen aldeko

La señora Aguirre pide la palabra para decir que ella votó a favor de que estas mo-

botoa eman zuela esateko.

ciones fueran adelante.

Alkate jaunak dio Ogasun Lan Batzordearen irizpena ari dela eztabaidatzen, eta Ahal Dugu-Podemos-ek alegazio batzuk aurkeztu zizkiola aurrekontuari, ez mozio batzuk.

Afirma el señor Alcalde que se está tratando el dictamen de la Comisión de Trabajo de Hacienda en la cual Podemos presentó unas alegaciones al Presupuesto y no unas mociones.

Aguirre andreak dio irizpenean ez direla aipatzen mozioak, eta hain zuzen ere, mozio horien inguruan jardun nahi duela berak.

La señora Aguirre dice que en el dictamen no se mencionan las mociones, y que precisamente quiere abordarlas.

Alkate jaunak dio hori ez dela oraingo eztabaida, oraingo hizpidea *La Plazoleta* elkarteak eta Ahal Dugu-Podemos talde politikoak Aurrekontuari egindako alegazioak direla; eta, baldintzak ez betetzera, alegaziook ezetza jasoko zutela uste izatekoa zenez, Ahal Dugu-Podemos-ek alegazio horiek mozio bilakatu dituela, Bozeramaileen Batzarrean eztabaidatu eta Udal Osoko bilkurara ez ekartzea erabaki zirenak.

El señor Alcalde afirma que no es el debate de ahora porque lo que se aborda son las alegaciones presentadas por la Asociación *La Plazoleta* y el grupo político Podemos al Presupuesto, y que como era previsible que se rechazasen porque no cumplían con los requisitos, Podemos las ha transformado en mociones, que fueron debatidas en la Junta de Portavoces y se decidió que no viniesen a Pleno.

Aguirre andreak dio berak nahiko zukeela Udal Osoko bilkurara ekartzea, eta ez denez aipatzen, horixe zen Ahal Dugu-Podemos-en lana berreskuratzeko modua zen, eta baita haiek egin duten lanarekiko begirunez ere.

La señora Aguirre dice que ella quisiera que hubiesen venido a Pleno y que como no se mencionan era la forma de recuperar el trabajo de Podemos, y por deferencia al trabajo que ha realizado.

Alkate jaunak dio oso zaila dela aurrekontuen hasierako onarpenari alegazioak aurkeztea, aurrekontu- eta lege-arrazoibide oso zehatzengatik bakarrik egin daitezkeelako. Halaber, dio, kolektibo batzuk alegazioak aurkezten dituzte beren posizioa erakusteko, nahiz eta ezetza jasoko dutela jakin. Eta bere Taldeak esan zuela: Ahal Dugu-Podemos-en zuzenketetan bazeuden interesgarriak izan zitezkeen gauza batzuk, baina, bere iritziz, hau ez da akordio batera iristeko esparrua.
Amaitzeko, alkateak esan du txosten teknikoak kontrakoak direla, eta, noski, berek alegazioen kontra egingo dutela.

El señor Alcalde afirma que es difícil presentar alegaciones a la aprobación inicial de los presupuestos porque sólo se puede alegar por razones jurídico- presupuestarias muy concretas, que no obstante hay colectivos que las presentan para mostrar su posición, a sabiendas de que van a ser rechazadas, y que su Grupo ya manifestó que había cuestiones en las enmiendas de Podemos que podían ser interesantes, pero que entiende que este no es el marco para llegar a un acuerdo.

Concluye que los informes técnicos son negativos, y que lógicamente, van a desestimar las alegaciones.

Aguirre andreak hartu du berriro hitza. Esaten du hau urrats garrantzitsua dela aurrekontu parte-hartzaile entzutetsu horientzat; bere ustez, *La Plazoleta* elkartearen eta Ahal Dugu-Podemos-en ahalegin serioa izan da honako hau, eta, agian, prozeduran erratu badira ere, gai hori berriro berreskuratu behar da, eta jakin zein den herritarrek parte hartzeko duten modua, zergek denei eragiten dietelako.

La señora Aguirre interviene de nuevo y dice que es un paso importante para los famosos presupuestos participativos, que cree que ha sido un intento serio por parte de la Asociación *La Plazoleta* y de Podemos de participar también en los Presupuestos, y que aunque igual se han equivocado en el procedimiento, es un tema que hay que retomar y saber cuál es la forma para que participen los ciudadanos, porque los impuestos atañen a todos.

Irizpena botaziopean jarrita, onartu egin da emaitza honekin:

Sometido a votación el dictamen, se aprueba con el siguiente resultado:

Baiezko botoak: Alkatea, Albistegui Za-

Votos afirmativos: Alcalde, Albistegui Za-

macola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE).

Ezezko botoak: Aguirre Unceta (IRABAZI).

Abstentzioak: Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren -Lamarain Cobok delegatutako botoa ere eman du-, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV).

macola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga e Iraola Iriondo (PSE-EE).

Votos negativos: Aguirre Unceta (IRABAZI).

Abstenciones: Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren - quien ejerce voto delegado por Lamarain Cobo-, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV).

4. ATALA Premiak.

Idazkariak dio ez dagoela izaera juridiko-administratiboko urgentziarik.

PUNTO 4º Urgencias.

Informa la Secretaria que no hay urgencias de carácter jurídico- administrativo.

5. ATALA. Eibarko EAJ-PNV Udal Taldearen mozioa, Loiura doan autobus zerbitzua hobetzeko.

Idazkariak dio, joan zen maiatzaren 18an, EAJ-PNV Taldeak mozio bat aurkeztu zuela, eta, gaurko egunez, EH Bilduk eta Irabazi taldeek ordezko mozio bat aurkeztu dutela; eta erdibideko beste mozio bat ere aurkeztu dela, PSE-PSOE eta EAJ-

PUNTO 5º Moción de Eibarko EAJ-PNV Udal Taldea sobre mejora de servicio de autobús a Loiu.

Indica la Secretaria que el pasado 18 de mayo, el Grupo EAJ-PNV presentó una moción, y que con fecha de hoy se ha presentado una moción alternativa suscrita por EH Bildu e Irabazi, y otra transaccional entre PSE-PSOE y EAJ-PNV a la moción

PNV taldeena, EAJ-PNV Taldeak aurkeztu zuen jatorrizko mozio hartatik abiatutakoa.

originaria del Grupo EAJ-PNV.

Aurrenik erdibideko mozioa irakurri du:

En primer lugar da lectura a la moción transaccional:

ERDIBIDEKO MOZIOA, EIBARKO PSE-EE ETA EIBARKO EAJ-PNV TALDEEK AIREPORTURA JOATEKO AUTOBUS ZERBITZUAREN INGURUAN EAJ-PNV TALDEAK AURKEZTU DUENARI EGINDAKOA

MOCIÓN TRANSACCIONAL ENTRE PSE-EE DE EIBAR Y EIBARKO EAJ-PNV A LA PRESENTADA POR EAJ-PNV SOBRE EL SERVICIO DE AUTOBUSES PARA IR AL AEROPUERTO

“1- Eibarko Udalbatzarrak Gipuzkoako Foru Aldundiari eta haren Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Departamentuari eskatzen die erakunde biak —Udala eta Aldundia— aritu daitezela elkarlanean Eibar-Loiu garraio publikoko zerbitzuari buruzko datuak aztertzeko; azterketa horretatik atera daitezkeen ondorioak jorratzeko; eta, hala egokituz gero, zerbitzua hobetzeko neurriak hartzeko.

“1- El Pleno del Ayuntamiento de Eibar solicita a la Diputación Foral de Gipuzkoa y a su Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio para trabajar conjuntamente ambas instituciones en el análisis de los datos sobre el servicio existente de transporte público Eibar-Loiu, conclusiones derivadas de ese análisis y, en su caso, medidas a adoptar para la mejora del servicio si así se entendiera.

2- Eibarko Udalbatzarrak Eibarko alkateari eta Gipuzkoako Garraio Agintaritzan Udalak dituen ordezkariei eskatzen die, akordio hau oinarritzat dutela, eman ditzatela aztertutako datu guztiak udal talde guztiak ordezkatzen dituen organo baten baitan.

2- El Pleno de Eibar solicita tanto al Alcalde como a los/as representantes que el Ayuntamiento tiene en la Autoridad del Transporte de Gipuzkoa que, tomando este acuerdo de referencia, que todos los datos analizados sean compartidos en un órgano municipal en el que estén representados los grupos municipales.

3- Eibarko Udalak erabaki honen berri emango die Gipuzkoako Garraio Agintaritzari, Gipuzkoako Batzar Nagusiei eta Gipuzkoako Foru Aldundiari."

3- El Ayuntamiento de Eibar notificará este acuerdo a la Autoridad del Transporte de Gipuzkoa, a las Juntas Generales de Gipuzkoa y a la Diputación Foral de Gipuzkoa."

Ondoren, ordezko mozioa irakurri du:

A continuación da lectura a la moción alternativa:

"Aireportura joateko autobus zerbitzuaren inguruan, Eibarko EH Bildu eta Irabazi Taldeek (Gipuzkoako Foru Aldundiari galdetu ondoren) aurkezten duten ordezko mozioa EAJ-PNV Taldeak aurkeztu duen mozioaren aurrean.

"Propuesta de Moción alternativa de Eibarko EH Bildu e Irabazi a la presentada por EAJ-PNV sobre el servicio de autobuses para ir al aeropuerto (tras abordar esta cuestión con la Dipuación Foral de Gipuzkoa).

1.- Eibarko Udalbatzarrak eskatzen die Gipuzkoako Foru Aldundiari eta haren Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Departamentuari, erakunde biak, Udala eta Aldundia, elkarlanean ari daitezela Eibar-Loiu garraio publikoko zerbitzuari buruzko datuak aztertzeko; azterketa horretatik atera daitezkeen ondorioak jorratzeko; eta, hala egin beharra badago, zerbitzua hobetzeko neurriak hartzeko.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Eibar solicita a la diputación Foral de Gipuzkoa y a su Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio para trabajar conjuntamente ambas instituciones en el análisis de los datos sobre el servicio existente de transporte público Eibar-Loiu, conclusiones derivadas de este análisis, y en su caso, medidas a adoptar para la mejora del servicio si así se entendiera.

2.- Horrez gain, Eibarko Udalbatzarrak hertsatzen ditu, bai Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Hiri Antolamendu Departamentua bai Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila, interoperabilitatea sustatzeko

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Eibar además, insta al Departamento de Movilidad y ordenación Urbana de la Diputación de Gipuzkoa y al Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras del Gobierno Vasco a acelerar los trámites opor-

egin behar diren izapideak egitera, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako garraio publikoko txartel bakarra martxan jartzera.

tunos para el fomento de la interoperabilidad y la puesta en marcha de una tarjeta de transporte público única para Araba, Bizkaia y Gipuzkoa.

3.- Eibarko Udalbatzarrak eskatzen die alkateari eta Udalak Gipuzkoako Garraio Agintaritzan dituen ordezkariei, akordio hau oinarritzat dutela, beharrezko diren kudeaketa-lan guztiak egin ditzatela eta horien berri eman dezatela udal talde guztiak ordezkatzen dituen organo baten baitan.

3.- El Pleno de Eibar solicita tanto al Alcalde como a los/as representantes que el Ayuntamiento tiene en la autoridad de Transporte de Gipuzkoa que, tomando este acuerdo de referencia, lleven a cabo los trabajos de gestión necesarios y den cuenta de los mismos en un órgano en el que estén representados todos los grupos municipales.

4.- Eibarko Udalak erabaki hau jakinaraziko die Gipuzkoako Garraio Agintaritzari; Gipuzkoako Batzar Nagusiei; Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapen eta Azpiegitura Sailari."

4.- El Ayuntamiento de Eibar notificará este acuerdo a la Autoridad del Transporte de Gipuzkoa, a las Juntas Generales de Gipuzkoa, a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras del Gobierno Vasco.”

Mendicute jaunak hartu du hitza eta adierazten du premia bat ikusi duela, jende askok eskatutakoa: Eibar eta Loiuko aireportuaren arteko konexioa autobusez.

Interviene el señor Mendicute quien manifiesta que ha detectado una necesidad reclamada por mucha gente, y que es la conexión por autobús entre Eibar y el aeropuerto de Loiu.

Dio bere Taldeak hasierako proposamen bat egin zuela; gero, alderdi sozialistak erdibideko zuzenketa bat egitea proposatu ziela; Bilduk ere beste testu bat aurkeztu zuen. Ados daude formazio bi horiek aurkeztu dutenarekin —dio Mendicute jaunak—, baina Bilduren ordezko mo-

Prosigue diciendo que su Grupo hizo una propuesta inicial, y luego el partido Socialista les propuso una enmienda transaccional, presentando también otro texto Bildu. Que están conformes con lo presentado por ambas formaciones, pero que la moción alternativa de Bildu junto con Irabazi

zioak, Irabazirenarekin batera, desbideratu egiten du bere Taldearen jatorrizko mozioa, berek egiten duten proposamena aireportuarekin dagoen konexioa hobetzeko delako, eta ordezko mozioak beste gauza batzuk eskatzen ditu. Hala ere, dio, bere Taldeak ez du inongo arazorik horretan, eta, gainera, hainbat erakunde ari dira horretan lanean.

Jatorrizko mozioan bere Taldeak ordueroko zerbitzua eskatzen zuen; eta hori egin daiteke, orduero ateratzen delako autobus bat Donostiatik Loiura; autobus horrek Eibarren geralekua izatea eskatzen zuten berek. Dagoen arazo bakarra da autobusaren ibilbidea atzeratu egingo litzatekeela Eibarren sartuz gero, egia esanda, Eibarrek trafiko-arazo handia duelako. Horrek ere beste eztabaida interesgarri bat ekarriko luke: autobus geltokia non ipini.

Gaineratzen du orain Eibarren sartzeak, trafikoko ataskorik ez balego, hamaika minutuko atzerapena ekarriko lukeela; baina Estaziño kaleko geraldia geltoki intermodaltzat hartuz gero, horrek lau minutu baino ez lituzkeela eskatuko.

Edozein modutan ere, dio, Udalaren eta Foru Aldundiaren artean aztertu behar den kontu bat da, baina eskaintza eta eskariaren azterketa horretan ikusi egin beharko litzateke zer izan zen aurretik, arrautza ala oiloa, jende batek ez duelako zerbitzua erabiltzen maiztasun faltagatik.

Geroxeago dio bere Taldeak planteatzen

desvirtúa la moción original de su Grupo, pues su propuesta es para mejorar la conexión con el aeropuerto, y la moción alternativa solicita otras cosas; si bien su Grupo no tiene inconveniente en ella, y de hecho, en ellas están trabajando diversas instituciones.

En la moción original, prosigue, su Grupo solicitaba un servicio cada hora, lo cual es posible ya que cada hora sale un autobús desde Donostia a Loiu, y planteaban que dicho autobús parase en Eibar, si bien, la pega a ello es que la entrada en Eibar atrasa el recorrido del autobús, pues la verdad es que Eibar tiene un problema de tráfico importante, lo que abriría otro debate interesante de dónde ha de ubicarse la estación de autobuses.

Añade que el entrar en Eibar en estos momentos, si no hubiera atasco por tráfico, supondría un retraso de once minutos, pero que si se plantea como estación intermodal la parada en la calle Estaziño, ello no supondría más de cuatro minutos.

En todo caso, continúa, es una cuestión a analizar entre el Ayuntamiento y la Diputación; pero en cuanto al análisis de la oferta y la demanda, habría que ver si fue antes el huevo o la gallina, pues hay gente que no utiliza el servicio porque este no tiene la suficiente frecuencia.

Dice más adelante que lo que su Grupo

duena, funtsean, hauxe dela: garraio publikoko zerbitzua hobetzea Eibarko pertsonentzako, baina Eibarrek hiriburuekiko duen "*distantziakidetasun*" hori sustatzea eta aprobetxatzea ere bai, Eibarrek pribilegiozko egoera duelako, zerbitzuak erakartzen uzten diona, eta puntu egokia izan daiteke, ez bakarrik Eibarko pertsonentzako, baita eskualdekoentzako ere.
Gaineratzen du alderdi sozialistak azterketa-lan bat egitea eskatzen duela, eta bere Taldea ados dagoela lan horrekin. Berek eskatzen duten gauza bakarra hauxe dela: lan hori udal talde guztiekin partekatzea.

plantea es básicamente mejorar el servicio de transporte público para las personas de Eibar, pero también el fomentar y aprovechar la situación de "*equiproximidad*" que tiene Eibar respecto a las capitales, pues Eibar tiene una situación privilegiada que le permite atraer servicios, y que puede ser un punto adecuado no sólo para las personas de Eibar; sino de la comarca.
Añade que el partido Socialista solicita que se haga un trabajo de análisis, trabajo que su Grupo comparte, y que simplemente lo que solicitan es que ese trabajo sea compartido con todos los grupos municipales.

Amaitzeko esan du poztu egiten dela akordio honetara iristeko gai izan direlako, eta berak nahi duena Foru Aldundiak zerbitzua martxan jartzea dela.

Finaliza afirmando que se felicita porque hayan sido capaces de llegar a este acuerdo y que desea que la Diputación ponga en marcha el servicio.

Ondoren, Errasti jaunak hartu du hitza. Esaten du bere Taldeak, Irabazirekin batera, ordezko mozio bat aurkeztu duela; baina, hala ere, ados daudela erdibideko mozioak jasotzen duenarekin, eta, baietz, aurretik premien inguruko azterketa bat egin behar dela.
Ordutegiarena oztopo bat da, dio Errasti jaunak, baina prezioarena ere bai, txartel bakoitzak 8,50 euro kostatzen duelako. Bestalde, dio, Eibarko herritarrek beste eskari batzuk ere egiten dituztela ikusi dira: Eusko Jaurlaritzak, hiru lurraldeetara-

Interviene a continuación el señor Errasti quien afirma que su Grupo presenta junto con Irabazi una moción alternativa, aun cuando también están de acuerdo con lo que recoge la moción transaccional, y considera que en efecto, hay que hacer un estudio previo de necesidades.
El horario es un inconveniente, prosigue, pero también lo es el precio, pues el billete cuesta 8,50 euros, así como que también se han detectado otras demandas de la ciudadanía eibarresa que no son otras que el Gobierno Vasco acelere la implantación

ko garraio-txartel bakarra ezar dezala, eta BAT, BARIK eta MUGI atzean utzi, horiek kartera bete egiten dutelako, batik bat, Eibarko herritarrentzat, Eibar mugan baitago.

de la tarjeta única de transporte para los tres territorios y dejar atrás las BAT, BARIK, y MUGI que llenan la cartera, y sobre todo para la ciudadanía eibarresa, que vive en la frontera.

Aguirre andreak dio berak bat egin duela Bilduren proposamenarekin, Eibar-Loiu zerbitzua oso jende gutxik darabilela deritzolako; baina, bestalde, txartela jende gehienak erabiltzen du, gehienbat, jende nagusiak.

Gaineratzen du Imanol Lasa diputatuarekin egon zela proposamen partehartzaileei buruzko topaketa batean, eta topaketa haietan behin eta berriz errepikatu zela txartel bakarra erabiltzeko aukera berehala ezarri beharra zegoela.

Aireporturako autobus-zerbitzuarena oso jende gutxirentzako denez eta txartela jende askok erabiltzen duenez, Aguirre andreak esaten du berari iruditu zitzaiola huraxe zela unea, ez exijitzeko, horretan lanean ari direlako, baina bai txartel bakarra azkarrago ezartzeko.

La señora Aguirre manifiesta que se ha adherido a la propuesta de Bildu ya que le parece que el servicio Eibar-Loiu es minoritario, pero que por otra parte, el uso de la tarjeta es mayoritario, sobre todo, por la población mayor.

Añade que estuvo con el Diputado Imanol Lasa en un encuentro sobre propuestas participativas, y que en ese encuentro se repitió una y otra vez el planteamiento de que se acelere el uso de una única tarjeta.

Ante lo minoritario del servicio del autobús al aeropuerto y el masivo de la utilización de la tarjeta, le pareció que era el momento no de exigir, porque se está en ello, pero sí de acelerar la tarjeta única.

Ondoren, alkate jaunak hartu du hitza. Esaten du, bere ustez, denek daudela administrazio-mugen kontra, batik bat, mugan bertan bizi direnak; eta hori ez da bakarrik garraio publikoko txarteletarako eskatzen, baita autobideko txartelerako ere, bakoitza bizi den lurraldearen arabera autobidearen prezioa finkoa izan daitekeelako edo ez, eta, alde horretatik begi-

Interviene a continuación el señor Alcalde quien afirma que cree que todos están en contra de las fronteras administrativas, sobre todo para los que viven en la frontera, y no sólo para las tarjetas del transporte público; sino para la tarjeta de la autopista, de forma que no exista la posibilidad o no de tarifa plana según el territorio en que se vive y se disponga de una tarjeta que sirva

ratuta, errepide guztientzako balio izango lukeen txartel bat egon beharko litzateke. Baina, hala ere, bere iritziz, gai hori jatorrizko mozioaz baliatuta sartu da, eta jatorrizko mozioak oso zerbitzu zehatza du hizpide.

Geroxeago dio une honetan aireporturako hiru zerbitzu daudela goizez eta hiru arratsaldez, joan-etorrikoak, eta erabiltzaileen batezbestekoa pertsona bikoa dela.

Alkateak dio galdera hau egiten diola bere buruari: zerbitzua minoritarioa ote den zerbitzu gutxi daudelako; egia esanda, aireportura, beti, garaiz joaten delako; beraz, zerbitzu gehiago jartzeak lekarkeen kostua aztertu beharko litzateke.

Gaineratzen du Eibarko geltokia herritik kanpo balego, autobidearen ondoan, autobusak askoz gutxiago tardatuko lukeela irteten; hori ona izango litzateke zerbitzuarentzako, baina ez daki berak bidaiariarentzako ona izango litzatekeen.

Alkateak dio Foru Aldundiak hausnarketa kuantitatiboko ariketa bat egin behar duela une honetan zerbitzu honek dakarkion gastuaz. Orain, Debagoieneko autobusa aprobetxatzen da —eskualde hartan Eibarren baino bezero gehiago ditu linea horrek— ,eta Aldundiak begiratu egin beharko du neurri bat hartzerik dagoen zerbitzu-erabileraren datuak hobetzeko eta Foru Aldundiarentzako onargarria izango dena.

Foru Aldundiak datuak bidaltzen dituene-

para todas las carreteras; pero que sí entiende que es un tema se ha introducido aprovechando la moción original, que habla de un servicio muy concreto.

Dice más adelante que en estos momentos existen para el aeropuerto tres servicios a la mañana y tres a la tarde, de ida y vuelta, con una media de usuarios en torno a dos personas.

Se pregunta, continúa, si el servicio es minoritario porque los servicios son pocos, porque la verdad es que al aeropuerto siempre se va con tiempo, por lo que habría que analizar el coste que supondría más servicios.

Añade que lógicamente si la estación de Eibar estuviera a las afueras, pegada a la autopista, el autobús tardaría bastante menos en salir, y que ello sería bueno para el servicio, pero no sabe si para el pasajero.

Prosigue afirmando que la Diputación tiene que hacer un ejercicio de reflexión cuantitativa de lo que está suponiendo este servicio en este momento, en el que se aprovecha el autobús del Alto Deba - que en el Alto Deba tiene más usuarios que en Eibar-, para ver si existe algún tipo de medida que pueda ser efectiva para mejorar los datos de uso del servicio, y que sea asumible por la Diputación.

Una vez se reciban los datos por parte de

an, dio alkateak, datu horiek aztertu egingo dira, Trafiko Batzordean edo Bozeramaileen Batzordean, eta, hortik aurrera, ikusiko da dagoen zerbitzua justifikatuta dagoen eta zerbitzua ez gehitzea erabakitzen den edo zerbitzuak gehitzeko aukerarik ikusten den.

la Diputación Foral, concluye, se analizarán los mismos bien en la Comisión de Tráfico, bien en la Junta de Portavoces; y a partir de ahí, se verá si queda justificado el servicio existente y la posición de no aumentarlo, o se ve la posibilidad de aumentar los servicios.

Mendicute jaunak hartu du berriro hitza; ematen du zalantzan jartzen dela erabiltzaileek egiten duten eskaria —dio—; eta interesgarria izango litzatekeela datuak eskuratzea, Loiun urtean zehar zenbat eibartarrek hartzen duten abioia jakiteko, Loiuko aireportuak urtean lau milioi eta erdi goratik bidaiari hartzen dituelako. Horrek esan nahi du urteko milaka bidaiari direla abioia han hartzen duten eibartarrak, eta horrek galdera hau egitera darama: eibartarrek zergatik ez dute hartzen autobus hori?.

El señor Mendicute interviene de nuevo para decir que parece que se cuestiona la demanda por parte de los usuarios, y que sería interesante que se dispusiese de datos de cuántas personas de Eibar cogen vuelos en Loiu a lo largo del año, porque el aeropuerto de Loiu tiene más de cuatro millones y medio de viajeros por año, lo cual supone miles de viajeros al año de Eibar, y esto lleva a la pregunta de por qué los eibarreses no cogen este autobús.

Esan dute, dio, bere Taldeak autobus-geltokia herritik kanpo jarri nahi duela, baina hori ez dela horrela, herriaren erdialdea trenaren geltokiraino heltzen delako: gaur egun, Egogain kalean dagoen autobus-geltokitik herriaren beste puntaraino eta Estaziñoko tren-geltokitik herriaren beste muturreraino, distantzia berdina dago. Beste kontu bat da alde bat bestea baino gehiago interesatzea: erdialde neuralgikoa anbulatorioa da. Mendicute jaunak dio udaletxea eraiki zenean, orduko alkateak, José Antonio Iturrioz jaunak,

Se ha dicho, prosigue, que su Grupo plantea la parada a las afueras de la ciudad, pero ello no es así, pues el centro llega hasta la estación de tren, y así desde la actual parada de autobuses de Ego-Gain a un extremo de la ciudad, y desde la estación de tren de Estaziño al otro extremo de la ciudad, hay la misma distancia. Indica que otra cosa es que interese más una zona que otra; el centro neurálgico es el ambulatorio, siendo así que cuando se construyó la Casa consistorial, el alcalde de entonces, D. José Antonio Iturrioz, se encon-

kontrako seiehun sinadura baino gehiago jaso zituela udaletxea herriaren kanpoko aldean egin behar zutelako.

tró con más de seiscientas firmas en contra de que el edificio del ayuntamiento se hiciera a las afueras.

Alkate jaunak dio berak ez duela hitz egin EAJ-PNVk geltokiarentzako duen kokapen aukera horren inguruan; zenbat eta kanporago egon, hobe dela baizik; eta esan du autobidearen ondoan balego, gutxiago tardatuko lukeela.

El señor Alcalde afirma que él no ha hablado de alternativa de ubicación del PNV; sino que cuanto más a las afueras esté mejor, y ha dicho que si estuviera pegado a la autopista, tardaría menos.

Aguirre andreak hitza eskatu du autobus bat gehiago eskatzen dela esateko, baina kontuan hartu behar dela asko direla Eibar alderik alde zeharkatzen duten autobusak, eta, horren ondorioz, kutsadura atmosferikoa ikaragarria dela.
Gaineratzen du Eibarren trafikoa arintzea dela gairik garrantzizkoena eta kontuan hartu beharrekoa.

La señora Aguirre pide la palabra para decir que se pide un autobús más, pero que hay que tener en cuenta que son muchos los autobuses que atraviesan todo Eibar, con lo que la contaminación atmosférica es enorme.
Añade que el tema de descongestionar el tráfico en Eibar es uno de los temas más importantes a tener en cuenta.

Erdibideko mozioa bozkatu da eta onartu egin da onartu emaitza honekin:

Sometida a votación la moción transaccional, se aprueba con el siguiente resultado:

Baiezko botoak: Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko (EAJ-PNV).

Votos afirmativos: Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga e Iraola Iriondo (PSE-EE), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV),

Ez dago ezezko botorik.

Abstentzioak: Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren -Lamarain Cobok delegatutako botoa ere eman du-, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), Aguirre Unceta (IRABAZI).

6. ATALA. Irabazi-ren mozioa, aldaketa klimatikoa gelditzeko eta Eibar babesteko neurriak hartzeko.

Idazkariak testu hau irakurri du:

MOZIOA: "KLIMA ALDAKETA GELDITZEA ETA EIBAR BABESTEA."

"María Jesús Aguirre Unceta andreak, Irabazi-Ganemos-Eibarren bozeramaileak, azpiko mozio hau proposatu du, hurrengo Osoko bilkuran eztabaidatu eta onartzeko:

ARRAZOIEN AZALPENA

Gainean dugu klima-aldaketa, eta, itxura denez, bertan geratuko da. Horren jakitun bagara Eibarren, eta aldaketa gelditzeko politika egokiak jarri behar ditugu martxan; haren ondorioak leundu eta egoera berrira moldatzeko politikak, egungoak zein etorkizuneko belaunaldiek etorkizun duina izan dezaten.

Votos negativos: ninguno.

Abstenciones: Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren - quien ejerce voto delegado por Lamarain Cobo-, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), Aguirre Unceta (IRABAZI).

